


PROPOSAMENEN DOKUMENTUAK:

Gizarte aldaketarako eta herri politikak hobetzeko **proposamenak egiteko topaketa parte hartzailea.**



PROPOSAMENEN DOKUMENTUAK

Gizarte aldaketarako eta herri politikak hobetzeko **proposamenak egiteko topaketa parte hartzailea.**

Kredituak

European Anti-Poverty Network (EAPN) Europar Batasuneko herrialde kideetan Pobreziari eta Gizarte Bazterkeriari aurka egiten dieten Gizarte Erakundeen Plataforma Europarra da. EAPNren asmoa da pobrezia edo gizarte bazterkeria pairatzen duten herritarrak beren eskubideen eta beharren jabe izatea eta isolamendutik eta egoera horretatik irtetea. Bi gai horiek Europar Batasuneko eztabaida politikoen erdigunean jartzea du helburu nagusi.

Bestalde, Espainiar Estatuko Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Sare Europarra (EAPN-ES) erakunde horizontala, anitza eta independentea da, eta espainiar gizartean helburu hori lortzea du helburu, baita herri politiketan eragitea ere, Europa, erkidego zein herri mailan. Gaur egun, 19 sare autonomikok eta estatu mailako 19 erakundek osatzen dute, denak irabazi asmorik gabekoak eta pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako borrokan bat datozenak. Guztira, EAPN-ESek zortzi mila erakundetik gora biltzen ditu estatu osoan.

Izenburua: Proposamenen Dokumentua, Gizarte aldaketarako eta herri politikak hobetzeko proposamenak egiteko topaketa parte hartzailea.

Editorea: EAPN España
C/ Tribulete 18 Local. 28012 Madrid
Telf. 917860411 - eapn@eapn.es
www.eapn.es

Koordinazioa: EAPN-ESren Idazkaritza Teknikoa

Data: 2021eko ekaina

Finantzazioa:



Argitalpen honek Gizarte Eskubideen Ministerioaren eta Agenda 2030ren laguntza jaso du, PFEZeko zerga-esleipenaren kargupeko Diru Laguntzen Programaren barruan (Espedientea: IRPF 101 / 2020 / 227 / 3 / PROGRAMA PARTICIPACIÓN, JUVENTUD Y CAMBIO SOCIAL). Argitalpenean adierazitako informazioa ez da Ministerioaren jarrera ofizialaren isla.

Diseinua: www.pontella.es

© **edizioarena:** EAPN España



Dokumentu hau osorik edo zati batean erreproduzitu daiteke, betiere iturriak aipatzen badira eta edukia editatuta dagoen bezala errespetatzen bada, inolako aldaketarik egin gabe.

Aurkibidea

Sarrera	4
Zer proposatzen dute gazteek?	6
Enplegua eta hezkuntza	7
Enplegua eta lan merkaturako sarbidea	7
Hezkuntza eta prestakuntza	8
Etxebizitza	11
Generoa eta berdintasuna	14
Kultura, aisia eta osasuna	17
Kultura eta aisia	17
Osasuna	18

Sarrera

Gizarte aldaketarako eta herri politikak hobetzeko proposamenak egiteko topaketa parte hartzailearen helburua aukera gutxiagoko gazteen eta gazteriaren arloan erabakiak hartzeko ahalmena duten adituen arteko elkarrizketa egituratua sortzea zen, bizitza demokratikoan gazteen parte hartzea, hiritartasun aktiboa, kulturarteko elkarrizketa, gizarte inklusioa eta elkartasuna sustatuz.

Elkarrizketa Egituratuaren inguruko jarduerak herri, eskualde, estatu edo Europa mailan Gazteriaren gaiei buruzko eztabaidetan modu aktiboan parte hartzen duten gazte erakundeei zuzenduta egon ohi dira. Baina EAPN-ESk antolatutako topaketa hau askoz harago doa, gizartean era aktiboan parte hartzen ez duten gazteak –gizarte kalteberatasunak jotako gazteak, bereziki– erakartzeko modu berritzaileak eta eraginkorrak garatzea baitu helburu.

Topaketan EAPNren estatu mailako erakundeetako kide diren Espainiako Erkidego eta Hiri Autonomo guztietako gazteek parte hartu zuten, herri eta erkidego mailan gazteek eta Gazteriaren alorrean erabakiak hartzeko ahalmena duten aditu eta teknikoek landutako proposamenak eta neurriak eztabaidatzeko eta horien gainean hausnartzeko xedez. Ongietorriari eta inaugurazioari zegokion lehen zatian, COVID-19ak Espainian izandako eragin sozioekonomikoa kontuan hartuta, gazteriaren egoeraren, zailtasunen eta erronken gainean hausnartu zuten. Jarraian, dinamika parte hartzaileen bidez, gazteek lau arlo tematiko nagusirekin lotutako gizarte aldaketarako proposamenak eta neurriak landu zituzten. Eta, azkenik, Elkarrizketa Egituraturako mahaietan, parte hartzaileek ordezkari politikoeekin eta Gazteriaren alorreko adituekin eztabaidatu ahal izan zituzten gai bakoitzeko neurri eta proposamenak. Helburu nagusia da EAPNk haiek lantzea eta neurriek eragin politikoa izatea, proposatutako hobekuntzak gauza daitezen.

Dokumentu honetan gazteek lau arlo tematiko hauen inguruan adierazitako kezkek eta proposamenak azalduko dira:



Enplegua eta Hezkuntza



Etxebizitza



Generoa eta Berdintasuna



Kultura, Aisia eta Osasuna

Gazteek izan behar dute gizarte aldaketaren bultzatzaile.
Gaur egun, gizarteak ezin du aurre egin gazteei entzun gabe eta haien parte hartze aktiboa piztu gabe. EAPN-ESko kideok pentsatzen dugu haien ikuspegia ezinbestekoa dela Gazteriaren arloko politikak hobetzeko gomendioak egiteko





ZER PROPOSATZEN DUTE GAZTEEK?

ZER NEURRI HAR DITZAKEGU ENPLEGU ETA HEZKUNTZA ARLOETAN HOBERA EGITEKO?

Espainiak gaur egun duen arazo nagusietako bat gazteen langabezia da; izan ere, 25 urtetik beherako hamar gaztetik lau langabezian daude. Egoera honen ondorioz, Espainia da Europa osoan gazte langabetu gehien dituen herrialdea, eta EBko tasa bikoizten du. Hala ere, gazteen kalteberatasuna ez da soilik haien langabezia tasa altuaren emaitza; lortzen dituzten enpleguen kalitate eskasak ere badu zerikusia, pobrezia eta bazterkeriaren mende uzten baititu. Pandemiak are gehiago okertu du lan merkatuaren egoera, eta, hortaz, gazteek zailago dute orain emantzipazioa eta agerikoagoa da haien aukera falta.

Jarrian, topaketan parte hartutako gazteek Enplegu eta Hezkuntza alorretan egindako proposamen nagusiak biltzen dira:



ENPLEGUA ETA HEZKUNTZA

Enplegua eta lan merkaturako sarbidea:


1. Adingabeen babes-sistematik irteten diren gazteen kontrataziorako pizgarriak ezartzea, heldutasunerako trantsizio duina ziurtatzeko.
2. Immigranteen laneratzea erraztea eta, era horretan, legez kanpoko egoeran dauden pertsonen lan-kontratu irregularren merkatu beltza desagerraraztea.
3. Asiloa eskatzen dutenei lan egiteko aukera eskaintzea beren eskaera ebatzi arte. Eta, bestalde, legez kanpoko egoeran dauden pertsonen lan egin ahal izateko baldintzak eta eskakizunak malgutzea, eta enpresek arrazoi ekonomikoengatik ikasten jarraitu ezin duten etorkinei doako ikastaroak eskaintzea.
4. Kontratu duinak eta soldata justuak hilabeteko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten langileen gutxieneko soldata igotzea.
5. Ordainik gabeko lanen erregularizazioa, eta lan-ikuskapen gehiago eta maizago egitea, kontratu prekarioak saihesteko.
6. Curriculum eredu itsu bat ezartzea hautagaiak modu inpartzial eta objektibo batean ebaluatzeko. Konpetentzietan oinarritutako estatu mailako curriculum bat, Europas-en ereduari jarraikiz.
7. Enpresen sentsibilizazioa langile atzerritarrei, ijitoei, dependentzia egoeran daudenei edo gizarte bazterkeria jasaten dutenei beren lehen lan-kontratua eskaintzeko, inolako aurreiritzirik gabe. Alde horretatik, beharrezkoa da etorkinen kulturaren inguruko kontzientziazio-lana egitea; esate baterako, hiyabaren erabilera normalizatu behar da, eta hura daramaten emakumeek jendaurrean lan egitea bultzatzea, inork iraindu gabe. Beren egoera erregularizatu arte, etorkinek ezinbesteko dute lan egitea, beren bizimodua egiteko diru-sarrerak izateko, eta inklusio-neurriak ere hartzea, gidabaimena atera ahal izan dezaten, adibidez.
8. Agiri profesional publiko eta doakoen (eskorga-gidaria, elikagai-maneatzailea...) lorpena erraztea, eta enpresek soilik mota horretako agiriak eskatzea. Lanbide espezializatuen arloan (soldatzaileak, obrako langileak, elektrikariak...) emakumeen parte hartzea bultzatzeko programa bat ezartzea.
9. Langilearen prestakuntza oinarritutako enplegarritasuna sustatzea, ez soilik arlo jakin batean duen lan-esperientzia oinarritutakoa. Bestela, lan-esperientziarik gabe, ezinezkoa da gazteek kontraturik lortzea.

KONTRATU DUINAK
ETA SOLDATA
JUSTUAK.


10. Autoeskoletan matrikularen prezioa jaitea eta gidabaimena lortzeko bekak sortzea, enpresen eskakizunetako bat izan ohi delako eta, beraz, enplegarritasuna hobetzen duelako. Era berean, autoen prezioa jaitea edo gazteek hura erosteko diru-laguntzak sortzea. Mugikortasunaren arloan, lantokira edo ikasketa-zentrora joateko garraio publikoaren prezioa jaitea, gazteek horretara bideratzen dutelako soldataren zati handi bat, eta bulegoak edo enpresak dauden poligonoetarako garraio publikoko ibilbideak sortzea, langileek erabil ahal izan ditzaten. Enpresek langileei garraio kolektiboa eskaintzea lanera joateko.

Hezkuntza eta prestakuntza:

11. Parte hartzearen kultura sustatzea. Gazteen parte hartzea onartzea ikasketa planak prestatzeko, era horretan gobernantza egokia bultzatzeko. Ikasleak heztea pentsamendu kritikoa gara dezaten, gazteek beren iritziak izan eta elkarrekin parteka ditzaten.
12. Hezkuntzaren esparrutik gazteei lan-eskubideen arloko prestakuntza eskaintzea. Gai hori derrigorrezko bigarren hezkuntzako curriculumean txertatzea. Enpresa sare kooperatiboen bidez, ekintzailatza sustatzea.
13. Hezkuntza afektibo-sexuala sustatzea gure gorputzaren parte gisa, generoa lantzea era anitz eta inklusiboan, eta hilekoa eta beste hainbat tabu deuseztatzea.
14. Interseksionalitatean oinarritutako hezkuntza eredu bat bultzatzea, egungo errealitateen transbertsalitatea kontuan hartuta. Gazte etorkinen prestakuntza eta hezkuntza erraztea.
15. Ikasleen segregazioa etetea eta kalteberatasun egoeran dauden ikasleen arrakala digitala murrizteko neurriak hartzea.
16. Hezkuntza emozionala, asertibotasuna eta ahalduntzea haurtzarotik lantzea. Adimen emozionala haurtzarotik garatzea, etorkizunean helduek pentsamendu kritikoa izan dezaten. Era berean, irakasleak aniztasunean eta haur psikologian prestakuntza jasotzea, ikasleen beharrak eta ikaskuntza-prozesuak hobeto ulertzeko.
17. Landa-eremuetako hezkuntza zentroak mantentzea: landako ikastetxe bateratuak; bigarren hezkuntzako zentroak; Lanbide Heziketako, Batxilergoko eta Nekazaritza Prestakuntzako zentroak; unibertsitateak, ikerketa zentroak, Prestakuntza Artistikoko zentroak (musika eta dantza kontserbatorioak, Arte Ederren eskolak), hizkuntza eskolak, etab.
18. Landa-eremuetan garraio publikoaren bidezko konexio ona bermatzea, bertako herritarren beste biztanle-guneetarako lan- eta hezkuntza-mugikortasuna errazteko. Landako haurrak eskolara joatea erraztea.
19. Ikasketa-beken kopurua handitzea eta unibertsitateko ikasketa jakin batzuk egin ahal izateko batez besteko notaren eskakizuna ezabatzea. Ikasi eta lan egiten duten gazteek ezin diete nota altuei eutsi aldi berean lan egin behar baldin badute ikasketak ordaindu ahal izateko.



HEZKUNTZA
SISTEMA
PRAKTIKOAGOA ETA
IKASLEEI



Enplegu eta Hezkuntza arloetako Visual Thinking metodologiako irudia. Ilustratzailea: Laura Fernández


20. Ikertzaile gazteentzako beka kopurua handitzea, eta irizpide errealistagoak ezartzea beka esleitzeko ebaluazio-baremoei dagokienez. Garraio-bekak ere barne hartzea.
21. Hezkuntza sistema praktikoagoa eta ikasleei zuzendua, lan-merkatua ezagutu dezaten.
22. Zeinu-hizkuntzarekin lotutako ikasgaiak proposatzea, aniztasun funtzionaleko haurrek ere parte hartu ahal izan dezaten. Haurrak heztea bestelako beharrak dituzten pertsonak ulertzeko eta beren gaitasunak hobetzen laguntzeko.
23. Espazio publikoa moldatzea, era guztietako pertsonen sarbidea errazteko. Entzumen urritasuna duten pertsonen hezkuntza bermatu behar da, eta institutu, ikastetxe eta hezkuntza zentroetan interpreteen kopurua handitzea. Hezkuntzan baliabide teknologikak erabiltzea, hala nola zeinu-hizkuntzako itzultzaile bat. Ikerkuntzaren arloko prestakuntza ere garrantzitsua da.



ZER NEURRI HAR DITZAKEGU **ETXEBIZITZA** ARLOAN HOBERA EGITEKO?

Espainia da gazteak beranduen emantzipatzen diren herrialdeetako bat, hainbat faktore direla eta. Alde batetik, enpleguaren kalitate txarrak eta lan merkatuaren prekaritateak egoera hori areagotzen dute; bestetik, etxebizitzaren merkatuaren egoerak, alokairu garestiek eta gazteek etxebizitza duina lortzeko zailtasunak ere lotura zuzena dute. COVID-19aren pandemiak eragindako krisi sozioekonomikoak eta osasun krisiak egoera are gehiago okertu dute. Leku batzuetan, hau da, «eremu tentsionatu» deritzenetan, normalean hirietan daudenak, arazoa bereziki larria da, erabateko deskonexioa baitago alokairuaren prezioaren eta gazteen soldataren artean.

Jarraian, gazteek Etxebizitzaren arloan egindako proposamenak adierazten dira:




ETXEBIZITZA

1. Gazteei zuzendutako etxebizitza sozialak eraikitzea, haien ezaugarriak kontuan hartuta (arkitektura oztopoak, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak, pisu partekatua, gutxieneko soldata kobratzen duten gazteak, seme-alabak dituztenak, etab.).
2. Landa-eremuetan etxebizitza publikoak eraikitzea; kasu honetan, etxebizitza-laguntzez gain lantokirainoko garraioa errazteko neurriak hartu behar dira.
3. Etxebizitza horietako bat lortzeko eskakizunak murriztea eta oztopoak desagerraraztea. Kudeaketa-gastuak eta fidantzak kentzea, eta alokairurako laguntzak eskatzeko tramiteak erraztea, azkarrago egin ahal izan daitezten. Genero, etnia, kultura edo herritartasun mailako eta LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako diskriminazioa dakarten eskakizunak kentzea.
4. Alokairuen prezioen premiazko erregulazioa. Gazteek, lan egin arren, ezin dira bakarrik emantzipatu, eta gastuak partekatuta ere, beren soldataren % 70 bideratzen dute etxebizitzara.
5. Gazteak emantzipatzeko hobarien eta alokairurako diru-laguntzen politikak bultzatzea. Pisuen prezioa finkatzea alokatu aurretik eta gutxieneko eta gehieneko salneurriak ezartzea, jabeak dirurik gal ez dezan eta alokatuek prezio justua ordain dezan, alokairua jabearen errentaren arabera kalkulatuta, eta era horretan etxebizitza duinak eskainiz. Era berean, alokairuan dauden etxebizitzaren eta haien ezaugarrien gaineko informazio osoa biltzen duen sistema sortzea. Tramiteen prozesua, eskakizunak eta burokrasia sinpletzea.
6. Gazteen emantzipazioa erraztea duen telefono bidezko zerbitzu bat eta webgune bat sortzea. Informazioak hizkera argi eta ulergarri batean azalduta egon behar du, eta erraz irakurri ahal da. gai hauen inguruko informazioa eskainiko da: diru-laguntzak, beka, alokairuak, etxebizitza bila ari diren gazteak harremanetan jartzeko ekimenak edo programak, etab. Horrez gain, gazteek izena eman ahal izango dute alokairuetarako diru-laguntzei buruzko informazio gehiago jasotzeko. Hutsik dauden etxebizitzetako jabeak gazteei aloka diezazkieten kontzientziatzeko iragarkiak eta publizitate-kanpainak.
7. Gazteen emantzipazio planak prestatzea eta gazteen etxebizitza duin baterako sarbidea erraztea. Gazte etorkinen eta tutoretzapean egondakoen etxebizitza baterako sarbidea errazteko neurri zehatzak hartzea, batez ere etxe-agentzietako tramite eta eskakizunekin lotuta. Aldi baterako egonaldietarako baliabideak eskaintzea: gazteek independentziarako edo bakarrik bizitzeko trantsizioa egin ahal izateko (tutoretzapeko pisuak, laguntza-pisuak...), eta era horretan eguneroko trebetasunak eta jarduerak lantzeko.
8. Gazteentzako etxebizitzetako argindarraren, uraren eta gasaren gastuak jaitea. Azken hilabeteotan, gazteak gutxi batzuen onurak biztanleriaren gehiengoari eragiten dion kaltearen lekuko izan dira.

GAZTEAK
EMANTZIPATZEKO
INFORMAZIO GUZTIA
ESKAINITZEN

9. Erabakiak hartzen dituztenen inplikazio handiagoa. Etxebizitzen gaineko kontrola, hutsik edo bankuen esku daudenak mugatzeko. Ezinbestekoa da erakunde publikoak bankuen eta etxebizitza okupatuen arteko bitarteko lanak egitea, familiek etxebizitza horietan bizitzen jarraitu ahal izan dezaten, beren egoeraren arabera eskakizun jakin batzuk betez, edo bestela familia horiei beste nonbait bizitzeko aukera eskainiz. Gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden familia eta pertsoneri etxebizitza horiek eskaintzea.
10. Etxe babestuen birgaitzea, eraikinetan energia berriztagarriak erabiltzeko. Eguzki-plakak jartzea, argindarraren kontsumoa murrizteko, eta ur-tangak, auzoko guztiek erabil ditzaten. Eraikinak gutxieneko osasun-neurriak bete eta bertan bizitzeko egokiak direla ziurtatzea, autoen "IAT" delakoaren antzeko prozesu baten bidez.
11. Lankidetzaren publiko-pribatua areagotzea, alokairuko eta etxebizitza sozialeko plazan kopurua handitzeko, gazteak independizatu daitezten. Ikasle gazteentzako, beka-dunentzako edo jardunaldi erdiko lan-kontratuak dituztenentzako alokairurako laguntza gehiago sortzea, haien emantzipazioa errazteko eta aukera gehiago izan ditzaten. Ikasleentzako etxebizitza babestuen sistema bat sortzea.
12. Etxe kaleratzeak debekatzea, etxebizitza izatea eskubide konstituzionala delako. Heziketaz jokatzea bazterkeria egoeran dauden pertsonen egunerokoan izan ohi dituzten gatazka konpontzeko. Etxegabeei ostatu emateko eta haien enplegarritasuna errazteko sistema bat sortzea. Etxegabeak etxean hartzeko ekimenak abiatzea. Ghettoak saihestea eta etorkinei interpreteen zerbitzuak eskaintzea.
13. Etxe bat erosten duten 30 urtetik beherako gazteentzako hobariak ez dira nahikoak. Bankuek hipoteka bat lortzeko ezartzen dituzten eskakizunak beteezinak dira egungo lan-kontratuekin. Hobari fiskalak ezarri gero, gazteek ez lituzkete hainbeste zerga ordaindu behar etxe bat erosi edo alokatzeagatik.





ZER NEURRI HAR DITZAKEGU GENERO ETA BERDINTASUNA ARLOETAN HOBERA EGITEKO?

COVID-19aren inguruko krisi sozioekonomikoak eta osasun krisiak agerian utzi dute zein hauskorrek diren emakumeek eskuratutako eskubideak, baita pandemia aurretik jada bazegoen desberdinkeria ere, gizonak eta emakumeak ezberdin tratatzen dituen sistema sozial, politiko eta ekonomiko batean oinarrituta. Oraindik COVID-19 emakumeengan izandako ondorioak neurtzeko datu nahikorik ez dugun arren, badirudi lehenagoko desberdinkeria egoera areagotu egin dela: langabezia nabarmen hazi da, gehienbat emakumeak dira familia zaintzeko ardura beren gain hartzen dituztenak, eta soldata txikiagoa dutenez, zerga-sistemak eragin handiagoa du haiengan. "Herri politika guztiak genero-ikuspegitik diseinatu behar dira".

Jarrian, topaketan parte hartutako gazteek Genero eta Berdintasuna alorretan egindako proposamenak biltzen dira:





GENEROA ETA BERDINTASUNA

1. Hezkuntza sistemak zentroetan edo haien kokapenetan hautemandako arazoei aplikatutako Heziketa Emozionala lantzea. Genero ikasketak dituzten adituek emandako hitzaldien bidezko irakaskuntza eraginkorra. Sexu abusuen inguruko hezkuntza haurtzaroaren lehen faseetik indartzea. "Pin parental" delakoa alboratzea, eta hilekoarekin lotutako arazoak ikusaraztea eta haien inguruan sentsibilizatzea.
2. Enpresa eta erakunde publiko eta pribatu guztiak behartuta egotea berdintasun planak izan eta aplikatzera, ordainsarien erregistroa egitera eta lan-jazarpenaren aurkako planak izatera. Lan-aukera berdinak bermatzea, lanpostu garrantzitsuenetan gizonak egon ohi direlako eta egungo soldata-arrakala handia delako.
3. Pertsona bakoitzak non lan egin nahi duen erabakitzeak askatasuna aldarrikatzea, eta estereotipoak deuseztatzea. Emakume, gizon, trans pertsona eta abarrei beren lan- eta soldata-eskubideen berri ematea. Enpresek genero ezberdintasuna eta LGTBQ+ kolektiboa beren onuran ez erabiltzea.
4. Trans legea behin betiko aplikatzea, eta trans pertsonak lan-merkatuan sartzea. Gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden LGTBQ+ kolektiboko kideen eta emakumeen birgizarteratze-programa, prostitutei eta salerosiak izan diren emakumeei eta haien familia eta seme-alabei zuzendua, besteak beste.
5. Lana eta familia bateragarri egiteko neurri berriak eta hobeak, bereziki beren kontura lan egiten dutenei edota mutualista autonomoei zuzenduak.
6. Eguneko zentro gehiago haur eta mendeko pertsonentzat; lan-jardunaldi murrizteko aukera, emakumeek etxean egiten duten lanaren zama arintzeko eta, haietako askoren kasuan, lana eta familia bateragarri egin ahal izateko.
7. Familiaren zama eta zaintzaile-rola: emakumeek gizonak baino familiarekiko ardua handiagoa hartzen dute beren gain. Buru osasun arazoak dituzten emakumeen kasuan, gaitzak okerrera egin ohi du, ez dutelako gizarteak onartutako jarduerak burutzen: aisia, lana, harreman sozialak... Beharrezkoa da laguntza-plan bat sortzea halako emakumeen bizitza independentea sustatzeko, hau da, emakumeen ahalduntzea jorratzea emakume horiekin eta haien senideekin.
8. Sexu eta genero erasoak eta bullyinga jasandako biktimei laguntza psikologikoa eta legezkoa eskaintzea. Buru osasunerako diru-laguntzak handitzea.
9. Laguntza handiagoa tutoretzapean egondako emakumeei, hezkuntza, enplegu eta gaintitu behar dituzten gizarte arazoaren aurreko babes mailan.

DIRU-LAGUNTZAK
ETA KONTZILIAZIO
NEURRI HOBEAK
ESKAINTEA

10. Baliabideak sortzea salaketak jartzeko unean inork baliabide ekonomikorik falta izan ez dezan. Zaindari gehiago kaleetan, bereziki gaez: gune bioletak, bus-ibilbide gehiago, gaueko zaindari gehiago. Emakumeen segurtasuna handitzea espazio publikoetan.
11. Emakume gazteak zientzien, teknologiararen, ingeniartzaren eta matematikaren arloko lanbideetan aritzea sustatzea, erreferenteen ikusgaitasuna bultzatuz. Historia, Matematika, Fisika, Kimika eta Filosofiako testuliburuetan emakumeak ere agertzea. Emakumeek zientzian duten funtzioa indartzea eta zabaltzea.
12. Ikus-entzunezkoen arloan eta gainerakoen emakumeei ikusgaitasuna ematea, eta emakume sortzaileen lana bultzatzea. Era berean, pertsonei kolorerik ez egokitzea beren sexuaren arabera. Gogoan izan behar dugu arrosa eta urdina kolore hutsak direla, ez genero irudikapenak. Gizartean ikuspegi kritikoa piztea publizitatearen, filmen eta musikaren alorrean dagoen sexismoa hauteman ahal izateko. Bechdel Testaren erabilera zabaltzea, filmetan genero arrakala ebaluatzeko.
13. Tratu Onen Sentsibilizazioa kanpaina. Pertsonengan kontzientzia piztea, trans kolektiboarekiko afektu handiagoa erakustea eta erakundeek pertsona gazte zein helduen parte hartzea bultzatzeko duten ahalmena baliatzea, haien esku baitago etorkizuneko belaunaldien hezkuntza. Aldian behin trans kolektiboarekiko eta interseksionalitatearekiko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak egitea, egutegi feministan seinalatutako egunetatik kanpo (M8, A25).
14. Kirol mistoak genero guztietarako duen garrantzia azpimarratzea.
15. Irakurketa feminista bultzatzea.
16. Genero bereko pertsonen arteko indarkeriaren aurkako legea birpentsatzea, bistan denez egungo legeak ez baitu balio. Zigor-kodearen erreforma: legedian jasota dagoen genero indarkeriaren kontzeptua zabaltzea, eta sexu eraso eta bestelako jokaerak barne hartzea. Emakumeak babesteko legeak indartzea eta sexu abusuen eta genero indarkeriaren aurkako zigorrak gogortzea.





ZER NEURRI HAR DITZAKEGU KULTURA, AISIA ETA OSASUN ARLOETAN HOBERA EGITEKO?

COVID-19aren pandemiak sortutako gizarte eta osasun krisiak eragin handia izan du gazteengan, bereziki lehenago ere kalteberatasun egoeran zeudenengan. Gazteek gaintitu behar dituzten oztopo eta erronkei aurre egiteko, funtsezkoa da kolektibo hori aldaketa bultzatzea. Modu aktiboan parte hartu behar dute zuzenean edo zeharka eragiten dieten faktoreen inguruko erabakietan. Horretarako, oso garrantzitsua da gazteen parte hartzea erraztea, eredu parte hartzaile berrietara egokitzea gazteek espazio horietan jardun dezaten, eta arrakala digitala murriztea.

Bestalde, osasunari dagokionez, haren gaineko ikuspegia transbertsala izatea, bizitzaren alderdi guztiak kontuan hartzea eta gazteentzat doakoa izatea beharrezkoa da. Era berean, premiazkoa da komunitate osora iritsiko den buru osasuneko plan bat abiatzea.


Jarraian, gazteek alor horietan egindako proposamenak biltzen dira:



KULTURA, AISIA ETA OSASUNA

Kultura eta aisia:

1. Aisialdi segurua eta inklusiboa sustatzea eta gazteen aisiarako aukera osasungarriak bultzatzea, pobrezia edo gizarte bazterkeria egoeran dauden adingabeei eta landa eremuetako gazteei jarduerak eskaintzea eta haien gizarte inplikazioa lortzea, apustu lokaletara jo edo Internet bidezko jokoetan apustu egin dezaten saihesteko.
2. Kultura segurua eta gehiago babestu beharko litzateke. Beharrezkoa da sentsibilizazio ekintzak burutzea, gorrotozko diskurtsoak eta jokaera diskriminatzaileak murrizteko komunikabideetan eta sare sozialetan.
3. Gune sozio-komunitario gehiago sortzea, belaunaldien arteko harremana sustatu eta kolektibo kalteberenak eta desgaitasunen bat edo aniztasun funtzionala duten pertsonak biltzeko; gazteteak, adibidez. Bertan, gazteek beren interesen arabera jarduerak egin ahalko dituzte, eta beraiek sortutako eta zuzendutako proiektuak burutu. Kultura jarduera inklusiboak (zinema, kontzertuak, antzerkia, erakusketak, dantza eskolak, udal igerilekuak, kiroldegiak eta aisiarako beste hainbat aukera) bultzatzea. Edonork parte hartu ahal duen aisialdiko jarduera kulturalak sustatzea, eta Internet bidezko apustuekin eta mendekotasuna eragiten duten beste jarduerak batzuekin lotutako aisiaren inguruko erregulazio argia ezartzea.
4. Estatuko Gazte Agiria zabaltzea, banku kontu bati lotu behar izan gabe. Deskontuen bidez eta zenbait jardura doan eskainiz, kultura eta aisia guneetan haren erabilera bultzatzea. Agiri honen abantailei buruzko informazio gehiago ematea, gazte guztien belarrietara irits dadin. Gazteen Agiriaren abantailak berberak dituen agiri berri bat sortzea, adinaren ordez pertsona horren egoera sozioekonomikoa kontuan izango duena.



5. Interneterako sarbidea erraztea, gailu elektronikoen eta konexioen bidez, eta gazteen artean arrakala digitala murriztea.
6. Aisialdiaren autogestioa sustatzea eta indartzea: ikaskuntza-bideak sortzea eta bitzitza independente bakoitzerako plan bat garatzea, protagonistek beren aisialdiko interesak hauteman ahal izan ditzaten.

Osasuna:

7. Funtsezkoa da gizarteak buru osasuneko (bereziki, suizidioarekiko) dituen aurreiritziak gainditzea, jendarean lan egiten duten herri zerbitzu guztietako profesionalak eta, oro har, jendea sentsibilizatzeko ekimenak antolatuz.
8. Buru osasuna zaintzeko plan nazional bat diseinatzea eta abiatzea, osasungintzaren eta psikologiaren arloko langileek babestua, bereziki landa eremuetan. Anbulatorio guztietan arreta psikologikoa eskaintzea, eta buru osasunaren arloko zerbitzu publikoak hobetzea, gazteei zuzendutako arreta duina, hurbila eta publikoa izan dadin. Lehentasuna eman behar zaio itxaron epeak laburtzeari.
9. Osasunaren gaineko ikuspegia transbertsala izatea eta pertsonen bizitzaren alderdi guztiak kontuan hartzea. Tutoretzapean egondako pertsonen ere laguntza psikologikoa eskaintzea. Arreta berezia eskaintzea mendekotasunei eta haien ondorio fisiko eta psikologikoei. Odontologia eta oftalmologia arloetako arreta publikoa izatea, eta espezialitate horietan itxaron epea laburtzea. Erantsitako zerbitzuetarako (betaurrekoak, ortodontzia, etab.) diru-laguntzak ematea.
10. Odontologia eta oftalmologia arloetako arreta publikoa izatea, eta espezialitate horietan itxaron epea laburtzea. Erantsitako zerbitzuetarako (betaurrekoak, ortodontzia, etab.) diru-laguntzak ematea.
11. Osasungintza publiko unibertsala aldarrikatzea, etorkinen eta legez kanpoko egoera administratiboan daudenen burokrazia murriztuko duena egoera urgenteetan ez ezik gainerako egoeretan ere osasun arreta jaso dezaten. Osasungintzaren arloko langileak kolektibo jakin batzuek (etorkinak, ijitoak, LGTBQ+, etab.) bizi duten egoeraren inguruan sentsibilizatzeko osasun kanpainak garatzea eta abiatzea.
12. Familia-plangintza gaindituta, emakume, gizon eta LGTBQ+ pertsonen sexuarekin eta ugalketarekin lotutako kalitateko osasun arreta eskaintzeko osasun zentro sarea eta prestakuntza egokia duten profesionalak badirela ziurtatzea.
13. Landa eremuetan osasun arreta erraztea, eta anbulatorioetako arreta hobetzea. Ospitaleak eta osasun zentroak beharrezko material guztiez hornitzea.
14. Ikastetxeetan elikadura ohitura osasungarriak sustatzea, eta hezkuntza zentroetatik kanpo nutrizio- eta aholkularitza-programak sortzea. Gorputz Heziketako ikasgaiaren gaitetgia zabaltzea, nutrizioarekin eta bizitza osasuntsuarekin lotutako gaiak ere lantzeko. Elikaduran aldaketak egitea, gaztaroan elikadura arazoak saihesteko. Jendea sentsibilizatzea, gehiegizko pisua duten pertsonen osasun egoera okerragoa dutelako ustea bazter dezaten, eta gazteekin lan egitea, bullyinga eta lodifobia ekiditeko.

BURU
OSASUNA
ZAINTEKO PLAN
NAZIONAL BAT
DISEINATZEA ETA
ABIATZEA

Gure sareak eta erakunde kideak:

19 sare autonomiko:

EAPN-Illes Balears-Xarxa per la Inclusió Social • Red Andaluza de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social • Red Aragonesa de Entidades Sociales para la Inclusión • Red Europea contra la Pobreza y la Exclusión Social en Castilla y León • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión social en Asturias • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social de Canarias • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social en Castilla-La Mancha • Red Euskadiko Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Sare Europarra • Red Madrileña de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social • Red de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social de la Región de Murcia • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social de Extremadura • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social de Melilla • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social en Cantabria • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social en Ceuta • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social en el Estado Español de la Comunidad Autónoma de Galicia • Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social en La Rioja • Red Navarra de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social • Taula d'Entitats del Tercer Sector Social de Catalunya • Xarxa per la Inclusió social de la Comunitat Valenciana

Eta estatu mailako 19 erakunde:

Accem • Acción Contra el Hambre • Cáritas Española • Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR) • Confederación de Centros de Desarrollo Rural (COCEDER) • Confederación Española de Personas con Discapacidad Física y Orgánica (COCEMFE) • Cruz Roja Española • Federación de Mujeres Progresistas (FMP) • Fundación Adsis • Fundación Cepaim • Fundación Cruz Blanca • Fundación Esplai • Fundación Secretariado Gitano • Hogar Sí • Movimiento por la Paz (MPDL) • Organización Nacional de Ciegos Españoles (ONCE) • Plena Inclusión • Provivienda • Unión Española de Asociaciones y Entidades de Atención al Drogodependiente (UNAD)



Finantzazioa:



Espainiar Estatuko Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Sare Europarra (EAPN-ES)

c/ Tribulete, 18 1º - 28012 Madrid

Tel. 91 786 04 11

eapn@eapn.es • www.eapn.es

